GARILLA
9
Eguena
Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru ilez
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzeŕijetakuak ... 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.343 zenbakija

Gayak

GOMUTA BI

Atzoko EUZKADI'n, argazki bi ikusi nebazan. Eta euretan, gomuta biren soŕlekubak ikusi.

Bata, ene jayotza-etxia da. Bestia, Kepa ta Benite'ren ezkon-argazkija.

Lenenguak, ene umarua gomutaratu eustan. Bigaŕenak, Kepa ta Benite'ren ezkon-auŕia ta abaŕ.

Ezkontzak, ezkon-auŕia eurena dabe, ba. Eta Kepa ta Benite'renak be, eurena ixan eben.

Ezkontzeko, ezkongaya bilatu biaŕ ixaten da. Bilatu, ta esku-eskatzia egin be bai. Esku-eskatze oni, guk, "eŕekadu-egin" esaten geuntsan.

Eta euzko-mutilei itzalik aundijena ezaŕten eutsan egin biaŕa, be, orixe ixaten zan: "emaztegeyari ezkontzeko "eŕekadu" egitia".

Kepa'k be, Benite'ri, eztakit nungo eŕomerijan ikusita begiz jo ebanian, emaztetzat aŕtuko ba-eban, aŕtu, "eŕekadu" egin biaŕa ixan eban.

¿Zelan egin? ¿Itz lauz? ¡Bai zera! Bertsolarijari mate-itzak itz lauz esatia etxegoko. Uŕetxindoŕak - eta, be, kabijak egiteko aldija elduten yakenetan, aritz-ganeko mate-kabitxubaren inguru jaŕijaz, euren matasuna abestiz agertu oi-dabe.

Eta Kepa be, mate-izpijak bijotza zulatu eutsanian eta begiz jota eukan maŕiari begira imiñi. bijotzian ganezka ebilkijon matasuna agertuteko, abestuten asi zan, eta olantxe abestu be:

"Kamiñotik albora
mendizka aldatzian,
bixi zara, Benite,
baseŕi-etxian.
Zelako guranija
dozun bijotzian,
jakitera ba-natoŕ
igande iluntzian."

"Zeure borondatia
da printzipalena,
eta uŕengo zeure
gurasuarena.
Ezpa-da borondate
etxeko danena,
ezertan ez astia
gauzarik onena."

Bertso oneik, eta emen iminten eztodazan batzuk be, Kepa'k abestu eutsazan.

Eta emen iminten ezpa-dodaz, buruban eztodazalako da, ta ez argitalgaŕijak eztiralako, Goikua'ren onespenak donetuten dauan matasun-bidez abestuten diran mate-abestijak, ostendu biaŕeko oŕbandunak eztira ixaten-eta.

Abestijoik, Benite'ri, atsegin ixan ete yakazan...? Jakin ez, ba, nik. Edozetara be, baña, iguin ixan yakazan antzik ezeban agertu, andik aldi gitxira mate-abijatxuban bata-bestiarentzat zirala, ezkon-buztaŕpian batuta ikusi ziran-eta.

"USPERETXA-JAUREGIJA"

Ona emen ene jayotza-etxeko basetxiaren ixena. Au be, atzoko EUZKADI'n ikusi ixan neban Etaŕte, txeigo, leyo ta telaturañoko gustija begiz jo neban, eta umarora begiratuta ume -antzo bertan jolastuten asi.

Ene lenengo negaŕ-intzirija entzun ixan eban basetxe arek, niretzat eztau eskoturik, begijak ertxita dodazala be, eskuturik eskutubeneraňoko g u s t i j a ikusten dautsat-eta.

Basetxe oŕen irudijak, ene ama zanak niri titija emoteko jezaŕlekutzat ixaten eban aulkijaren irudija be, begi -auŕera ekaŕten dauz, ba, ta aines zoragaŕijak egiten imiñi.

Amatxuk esaten eustanez, kaskodutxuba nintzala be, titija edaten ei -neban, nik, eta ama-altzuan egon era obia ixan zedijantzat, aulkija eruaten eiei-neutsan, antxe jezaŕita zala obeto emongo eustala-ta. ¡Alangoxe titi-zale puŕukatuba ixan ei-nintzan ba, ni! Ene ama zanak, ori esan oi-eban beñepein, eta arek guzuŕik esan eikiajik iñoz eneban uste ixan, gauŕ be eztot-eta.

Aulkitxu a, nik titija edatiari lagata be, an egoten zan. Onezkero apuŕtu-edo sutako auts biuŕtuko zala uste dot, baña. Aulkija eŕe ba-eben be, aren irudijak eŕe barik dirau. Eta nik dirauden aŕtian bixirik iraun be egingo dau, umaro-oroimenian gosi-josi eginda daruat-eta.

Amatxuren kolkua atsegin ixaten ba -yatan be, amama zanaren zorki bustijari, bilduŕ galanta ixaten neutsan.

Gure amamak, garbijaren garbiz, oñetan erabilten ebazan abarkak be, oski -antzo garbituten ebazan. Mosu-zikiñik, baŕiz, uŕetan be ezin ikusi ixaten eban.

Eta ni, urdala beteta ixan-ezkero, aurpegi zikiña gora-bera, ezertxu be estututen enitzan mutikotxuba ei-nitzan.

Nire amama zana uste oŕetakua zan, beñepein.

Eta ori zala-ta, ur epeletan busti -busti eginda ekaŕten eban zorkijaz, begi, mosu, idun eta abaŕ, ¡sekulako busti-aldijak emoten eustazan! Nik, baŕiz, amama'ren zorkija ikusi baño, adaŕdun txeŕena ikusi be gurago ixaten neban. Berak be ba-ekijan.

Eta ezagutzen nendubalako, eiztarijak erbijari lez, ereari itxaroten eutsan, eta atzipez aŕtuta zorki bustijaz buru ta belaŕi-gañoko gustijak beratuta imiñi.

Emen, ene kolko-baŕuban gordeta daukadazan gomuta oneik zirkinka imiñi daustazana, atzoko "Usperetxa-jauregija,,'ren argazkija ixan da.

Umetako jazokunak, ume-jazokunak ixaten diralako-edo, aguratuta gero be, gordin-gordin oroimeneratuten diranak ixaten dira.

Jazokun onein lekurik berezijena, baña, bakotxaren kolkua ixaten da.

Kolko au euren gorde-lekutzat egiña danezkero, ba, eneyuakijue lekurik kentzen, gane-estalkiz estalduta eurentzak egiña dan lekuban atsedendu-ten laga baño.

Agertu dautzubetazan oneik, ene amatxu jezaŕten zan aulkija, ta amama zanak ene aurpegija garbituteko erabilten eban zorkija atatuteko ixan dira. Lenengo gomutia, pozaldirik pozkaŕijena emoten eustana da. Bigaŕena, baŕiz, atsekaberik-atsekabiena bijotzeratuten eustana.

¡Aulkija ta zorkija...! Oŕa oŕ ene umarako oroimenik gozuena ta mingotzena telape baten estalduta. "Jauregi"-basetxe-telapian.

IBON.

Kanpion'en Yan-Pier

(EUSKERATUA)

(Jarraipena)

V

"Gau-erdiko meza kanpaiak ez ditu entzungo Yan-Pieŕe'k", iragaŕi zun Andre Mirene'k tristearen triste zan une batean.

Betetzeko zorin da iragarkia. Gabonetarako iru gau dira auŕetik, eta lenengoaren iluntze garaiean. Bidarte'nearuntz dira Eleizako santuak. Kandela -argiz zijoazkion Jauna'ri argi-emaka guda makuŕak eŕian utzi zitun gizon bakanak. Apaizaren orpoz-orpo emakumeak dijoaz; eskuan argizaiak. Gaxoaren etxean sar dira zenbaitsu eta baita bere gelaraño ere: aide-tartekoak eta adiskide miñenak dira. Naiz arpegia ikusi ez, burukoaz estalia baitdauka, Dominika nabari guziak: bere geŕi apaña zaio zalatari, bere ibilera liraña.

Zaleki artu du Jauna Yan Pieŕ'ek. Apaiza joan da. Emakumeak ere bai, Dominika ez besteak; belaun biak luŕean txoko batean dago piñuaren lerdentasunez. Zoŕoki zuzentzen diozka begiak andre Miren'ek: "gure bizkar par egitera etoŕi da; gu zirikatzera, Yan Pieŕ'en eriotzaz jolastutzera... olakorik!", dio berekiko. Pensatzen du gelatik aŕastaka ateratzea ere. Gogoa ordea zalantzan da: eriotza bertaagotuko bailuke edozein uskerik. Bere gogoz joango dala-ta... makurtu!: amatasun maitasunaren azken eskeintza. Elizakoen txintxaŕi otsa pitinka aienatzen da.

Leioa zear sarturik, ilargi izpi argitsu batek argi-egiten du Dominika'ren bastera. Gaxoaren oietik, abots goxo nagusi bat ziritzen da:

—Ainbat naigabe eman dizkidan mundutik joan baño len, pozkira bat agintzea egin dit Jauna'k: zuk damaidazuna ain zuzen ere Dominika. Zure ibileraz jabetu bai naiz. Aunitz esker; urbildu zatzait; begira nazazu bildurgaŕi ez banatzaizu.

Oldarka jositzen zaio olari Dominika.

—Tori nere eskuak. Besterik ezin eman.

Oi-buruan belaunikaturik, eskuak artzen dizkio Dominika'k muxuka.

—Azken-aldiz ikusi nai al ninduzun? Etzoaz oraindik; itxoin! Laister ilko naiz.

—Ez joateko etoŕi naiz. Neroni eskeintzera natorkizu. Ordu batzuetarako beenik, zure emazte izan nai det.

—¿Nere emazte, Dominika? Ildako baten emazte? Geiegia da. Zertarako nerekin ezkondu?

—Nere eskuz eriotzaz gero jantzi zaitzadun.

Ain izan zan maitasunezkoa eta seguroa Dominika'ren erantzun-abotskera, etzitzaion iñor aurka jaŕi eta areago ama.

... ...

(Jaŕaitzeko)

Tolosa'tik,

UZTUŔE.

Olerti - atalak

BUZTANIKAREA TA KAKARRALDOA

Buztanikara zurizka ariña
ŕekaldeko ertzean,
yauzi ta yauzi eten bakoan
aŕirik aŕi ebilan.

Goiko soloan zimaur artean
egoan kakaŕaldoak:
'zu, adiskide, ots egin eutsan
zetan oŕenbeste ikara?
Ez dot ulertzen ezelan bere
alegin oŕen beaŕa.

"Nire yauzketak, erantzun eutsan
eperdikara bizkoŕak,
atsegin biziz ikusten ditu
saŕi askotan gizonak.
Zuk baŕiz, beti zimaur artean
auzpez etzunda egonaz,
¿pozen izpirik ekarten dozu
gizon makalen gogora?

**Kakaŕaldorik asko ditugu
gizon artean sartuak;
iñoren lanak usteltzat etsiz,
laban-labanik estaldu gura
norberen nagitasuna.**

AŔUGAIN.

IZPEGI

"LAUAXETA,,'RI

Eskeintza "Lauaxeta,,'ri

Itxasuari begira nago
begijak ase eziñik,
bere buŕundu soñu gozoaz
gogo gustia beterik.
Beko ondaŕtzean—uŕezko zinta—
uinak laprastaka zuriz.
Beste orduko itxas jabana
jantziten yaku eguzkiz.

Itxastaŕ txori zuri-zurla
bere egoak zabalik,
kurutze-antzez ostar azpian
¡Oi neuk ba'neuka egorik!
Itxas-ertzeko eŕi gustiak
igaroko neukez pozik.
Eguzkiagaz uŕez jantzita
¡Nor lebilken neke-barik!

Marsopa baltzak dantza-dantzari
itxas zabalen altzoan;
bata bestien atzean dira
neke—gabeko lanean...
Ur urdiñaren zabal-ganean
aŕain txikien atzean.
Ertzeko atxan baŕeneraño
birau ta lengo bidean..

Uŕun aldeko itxas-altzoan
txalupa baten ganean
aŕantzalea begira dago
sardin-kala non dagoan.
¡A zidaŕezko sardin gozoak!
urten gorantza beingoan.
Etxian diran sendi maiteak
ipin daiguzan zeruan.

Auxe bai-dala Bakio'taŕen
itxas-ertzeko "begia"!
Zenbat eguzki ilunabaŕak.
zelako iluntzi goŕia!
Emendik saŕi ikusiko da
eguzki oŕen argia.
Laño ta itxaso margoz beterik,
egun azkenez lilia.

Baita gabeko andra Iratargi'n
izpilu garbi-garbia.
Bere magala izaŕez bete
olgetan gaba gustia.
Gero goizean argiak "prist-prist"
egitean, goi-argia!
Gau ilunaren ate-ostean
sortuko egun baŕia!

Zeuk ipiñiko izen baŕia
edeŕto dago jaŕia.
Bertan jezaŕi ta egiozu
aintzaz betezko olerkia.
Izan utzak, ba, eztau balio
Eizu mesede jartzia,
ikusten dozun gauz edeŕari
olerki baten janzkia.

ERLETXUE.

Uaŕa.—Eskeŕik asko zeure eskeintza oŕegatik. Bakio'ko toki edeŕ arek beste ixenik elei onaŕtu. "Izpegi". "Panorama marítimo" "Balcón de mar" eta beste olako ixen batzuren ordezkua dogu. Neuri begi-begiko yat. Bakio'taŕak eztagijela baztertu.—Lauaxeta.

LORELLEKO AMETSA

(Zintzotasuna)

Gaba dan ilun,
itsua dan ilun!
Itsu azan ene gaste
ez az zorundun...!

Ziri-ziri gokaizto,
ogel loreildun gaste mantso
giro obea noz izango?

Neure gauaren geldi-eziña
oe-ganean gira-bira.
Lo-girorik ez, lo-eziña.
Jagi leyotik begira.

Dana ilun. dana lotan.
ez, baŕiz. ene biotza.
Lora usaña suŕetan
zuri-zuri geriz-utsa!

Lore-usaña artutean
¡Ene...! ¡au geldi-eziña!
Tinko leyotik oñutsean
au loŕatzaren esaña!

Nora oa gau ilunean?
Nora oa gaste itsu?
Nor darabil ametsean?
Nor uste dok igaz bitzu...?

Txil-ixil auŕez-auŕe
ez jaramon geriza utsai.
Gau iluna jagok bare
jaŕai lore-usain loŕatzai.

Gau iluna dok ene gaste,
eztok entzungo tuntunik.
Txoriak itxi jabek abeste;
eztok auspoen kiŕin-kaŕarik.

Gogai utsa, gogai zuri,
egon adi ixil...
Gogan dotan lore usain gur,
eure jaŕai nabil...

Zer gaitik iŕits neure oñak,
zer da emen iŕislari?
Jo bea neure eskuak,
aŕlabana uŕe-goŕi...!

Ixo... ixo... ¡Au ogasuna!
Bai artuko, ez artuko.
Uŕez bete ba-naz dana
lora-usaña dok galduko.

Ziri-ziri gokaizto
ogei loreildun gaste mantso
Giro obea noiz izango...?

Sirti-sarta aurera auŕe,
gau berandu intza usaintsu.
Amets utsok bete arte
naimen-utsez adi bitzu...

Ixo... geldi, une beratan
—ai au abotsaren mea!
au mosuaren gozatsu!
au azalaren uŕea...!
Au edertasun mamintsu!—

¡Ene txorabira, ene txoro!
bai laztanduko, ez laztanduko.
Iaŕi ba-naz edeŕ begira,
lora-usaña dok galduko

Auŕera, auŕe oñak odolan
lora-usain loŕatza auŕera daŕai.
Noraño, noraño olan?
Erailgo nozu, ezin naz jaŕai...

Ixo... ixo gaste itsu
goizaren izpiak bedartza jo dautzu.
Abil azkaŕ lagariko oe epelera.
Mitxaletak datoŕz laŕera,
lorak datoŕz sasi-ganera...
Eguzki-izpiak agertutean
lo ago oe epelean...

Gaua dan ilun,
itsua dan ilun...
Itsu azan ene gaste
ez az zorundun...!

GASTE-BELU.

Mendata'n, bagila.

Uaŕa.—Ola adizkide: nundik ataraten dozak olako oleŕki edeŕak? Poz -pozik irakuŕi juat. Asko irakurten dokala, ondo agiri dok. Auŕera!.—L.

UDARA

Zer dute ene begiok aro ontan..?
Zer itxas-alde, mendi. oianetan...?
Oro zait lore-eder zoragaŕi
Oro ene ninien ase-ituŕi.

Goizik argituriko eguzkiak
Gainduz ditu sokondo guztiak.
Lipar aizeak estiki muxu
umeak urtan jolasen oju.

Itxasoa urdin ta bareki
gañean batel bat darabilki
aize oialez zuri zuriki.

Sorok orlegi baño-arigo
iñoiz baño zoragaŕiago
gari, arto babaŕun ta abar...
prixku, kereix, okan sagar.

Zelaiak loretzu usai edeŕez
kirkirak kauta gosetu beaŕez
Eguzkik zirt gogorkiro
pagoaren itzalen bai giro.

Emen jaialdi, au eŕomerik
aro-ontan ez ta beste biderik
ez bakarkote ta ez maldarik.

Zer dute ene begiok aro ontan...?
Zer itxas-alde, mendi, oianetan... ?
Oso zait lore-eder loragaŕi
Oro ene ninien ase-ituŕi.

ANDONI.

Uaŕa.—Olerti-Atalok egubenetan argitalduko dira. Olerkari asko agertzen yakuz eta euren lanok argitalduta ikusi gura leukiez. Beraz gustijentzat tokija ixan dedin, egubenak olerkarijentzat ixango dira.—L.

Euzkotar Umien Alde...

Gauza txarrak eder iriztea

"Umea landare biguna bezela azten da. Eta beaŕ bezela landu ezkero oŕi zabal, margo edeŕ ta usai gozodun loreak emango ditu." — JUAN DE DIOS PEZA. "Ikastola ona".

Beste guraso batzuek beŕiz gauza abek onak ez dirala jakin aŕen ontzat artu oi dituzte euren umeak egiñak diralako.

Ez dute ordea ausardirik iñoren auŕean ontzat emateko, eta abek beste era batera itz egiten dute. Onela.

—Ez dakizu gure Edortak egin duana!

—Ez nik. Zer ba?

—Pentza ezazu. Atzo dibujo'ko ikastolan ogeita bost mutiltxoen auŕean. ez dio ba "bizaŕ-aundi" esan bere irakasleai?

—Ene! rola jakin dezute ba?

—Irakasleak berak idatzi digulako, ez geyago bere ikastolara umerik bialtzeko, eta dibujo ordez aziera obea etxean emateko esanaz.

—Zigortuko zenduan oŕaitio.

—Bai zera! oŕegaitik? Bai dauka oraindik dibujua noiz ikasi.

—Ara bada. Ez det ondo bilatzen eta ezin neizuke besterik esan. Uŕengo batean oŕelako lotzagabekeririk egin ez dezan zigortu egin beaŕ zendun. Umeak ez du onenean uste izango oŕenbesteraňoko lotzagabekeria egin duanik eta. Zuk erakutzi egin beaŕ diozu ordea zaŕagoai, eta batez ere nor berari erakusteko mesedea egiten dion irakasleari oŕelako itzalgabekeria egitea gaiztoa baño gaizkiago dagoala.

—Ori esaten det ba neonek ere baña, Imanol gureak (Imanol gurea bere senaŕa da, umeari aziera ona emateko egundokoa) umeari deitu zion, eta: —Aizak, i, zer esan diok irakasleari?—galdetu zionean grazija batekin erantzun zigun: "Zera, ni egiten ari nintzan irudiagaitik bizaŕ geyegi zeukala esan ziran. —Begiratu egiok obetoago auŕean dekan ereduari; bizaŕ geyegi egin diok. Baita nik orduan, berari arpegira begiratuta: Zeuk ere bizaŕa obetoago daukazu. beste gauzarik baño—, esan diot, orixe, besterik ezer ez".

—Ara, umeak au esan zuanean (amaika urte ditu gero oraindik gure Edorta'k!) asi giñan senar emazteok paŕe algara batean eta kosta zitzaigun guri ixiltzea. Gure Imanol'ek beŕiz, ume oŕek egiten dituan lotzagabekeri danak ontzat artzen ditu eta: "Bejondeikela, mutil, —esan zion, —etziok i bezelakorik, izan ere, ez diat ... irakasle oŕek egunero bizaŕa ... duanik eta".

Ikusten degun bezela ez da ... kaŕik umearen lotzagabekeriak artzen dituana, amak ere berd... ten du, bere burua pixka bat nai izaten ba'du ere.

Ontzat artuko ez ba'lituzke, ... tzake bere adizkide guztiari be... za bat esaten ibiliko: "Ikusten zu gure Edorta'k eman digun ... bea? Dibujo'ko irakasleari a... auxe esan dio. Ene! ume abek ... dituzten gauzak!"

Ori esan aŕen, amak ez du u... dea esaera ori lotzagabekeri au... aziera txaŕaren agiri bat dan... zera! Umea berez dezu oŕela... umea berez dezu erantzupenak ... burura etorten zaizkiona, zirt ed... egitekoa, zertarako edo artara...

Amak eta aitak alkaŕi esan ... te: "Gure mutil onek beintzat ... zertarako balioko du, ez da sa... teŕean usteltzekoa izango".

Bai liteke, bai, zertara edo ... ume ori eltzea, baña obe izango... kela uste det elduko ez ba'litz... diralako gauzak euretaraño ez ... obeago diranak.

Onelako umeak ez dira tentela... oi, baña ez du onek esan nai ... tik kanporako argiak diranik e... ña onelako gurasoak ala uste ... dute, euren umea beste guztiak ... argiagoa eta zoliagoa dala, eta ... ñean auŕeratuaz, jakiña ba! arg... izan oi dira ea euren gurasoak ... izaten dute ori beste munduko ... ren bat dala, edo beste umeak ... rala berdin-berdin zazpi urtedun ... amaŕ urtedun azkaŕagoak izan ... amaŕdun baño amalaudun.

Lotzagabekeriak ere geroago ta... riago eta geroago ta aundiagoak ... go dituzte, eta gurasoak lenen... aoa zabalik entzun. oi zituzten ... erak", ia aunditxoak edo loditxo... rala ezagutzen dutenean berandu... go da.

Egunen batean amari berari e... dio edozer gauza, eta orduan ... juango ama ori bere lagunari s... edo alabak eman dion naigabea... tera. Orduan bere etxeko baste... tean sartu eta negaŕ egingo du, ... baña alpeŕik, bere seme alabar... da oneskero aldatuko ta asiera ... artzeko sasoia juan zaiotelako.

Onelako gurasoakaitik bai esan... tzakegula aizeak erein eta ek... batu dituztela.

AŔITOKIE...

Jel - bidian... Somorrostro'...

Bizkai - sartalde'ko jaya

Ganian dogu ila onen amabigaŕena. Egun oŕetan, fragaŕita daguan lez, euzko-jai edeŕak ospatuko dira, J. l., Somoŕostro deritxon eŕi polit ikusgaŕijan.

Beti dira onurakoŕak nozik bein egiten diran euzko-jayak oŕ-emen, ba eurek bidez, egun oŕetan, asi Goikua'ri otoitzak zuzenduten, ta jaraturik biribilketak, auŕeskuak, mueta askotako euzko-jolasak, itzaldi ta dantza gaŕbijakin amatubaz, Abeŕija'ri eskeintzen yakozan egun zoriontzubak dira, ta oŕelan, euzko-gogua, obetuago ezagutzen dogu, eta geruago ta obetuago ezagutu, geyago mate-ixango dogu.

Auŕerakada galanta loŕtuko dogu benetan, euzko-gogua biztu ta sendotuko daben jayak ugaritubaz.

Baña ezta ori gatik bakaŕik, Somoŕostro'ko jayatzaz idazten dogun zijua. Ez. Jai au, lenago Durango'n egiñiko jai ospetsubaren antzera, orain Bizkai -saŕtalde'ko abeŕtzaletasuna indaŕtzeko ixango da.

¿Nok eztaki luŕalde onetan zelako eragozpen gogoŕak idoro dabezan geure Irakasle Arana eta Goiri'taŕ Sabin 'aren jaŕaitzaleak lenengotik, euren Abeŕi-matasuna eutsi ta lauaxetara zabaltzeko?

¿Eta zelan erantzu dau beti arerijubak soŕtuniko buŕuka bixijari? Kementsu aldeztu dau beti Abeŕi bakaŕa, ta beste aldi baten Gordexola'ko zelayak euzko-odolaz goŕitu ziran lez, ¡bein baño saŕijautan goŕitu dira beŕtako urijak bere seme bulaŕtsuben odolaz, Abeŕi-matasuna ez ukatziaŕen! Eta eztira ixango azkenak kontizu...

Biaŕ-biaŕezkua da zabalgundea egitia luŕalde onetan.

Orain larogei bat uŕtetik ona amaikatxu atzeŕitaŕ saŕtu yaku emen; uri askotan geyago dira atzeŕitaŕak beŕtokuak baño; esate-baterako Ortueta'n iru atzeŕitaŕetik euzko-odoldun bat baño ezkara auŕkitzen.

Etziran ixan naiku beŕtokuan sendubak meatzari euren ogasuna... rateko ba jauntxu askoren asmua ... besterik al-eben gustija aŕtzia ... sakelak ondo beteteko baño.

Ori dala-ta, nata euzkeldunak ... emengo lenengoko biztanleak, e... koren ixenak aŕgi erakusten da... ben lez, geure-geuria dan euzkera ... ŕa ija gustiz galdu da... Eta ek... bak, geure asabagandik etoŕiniko ... du onak, il-zorijan dauz. Esan ... zeinde eden-luŕuna ba'litz lez zaba... dala atzeŕi-gogua, euzkotaŕa itogu...

Lan gogoŕa dan-aŕen egin biaŕ ... gure itxaropen osua abeŕtzaletasu... dago, ba abeŕtzaletasunak loŕtzen... tabenik eztau beste ezek be loŕ... gure ustez.

Ainbeste atzeŕitaŕ daguan lez ... geinke itxaron ekandubak eta la... euzkotutia. Ames-polit bat ixango... tzake ori, baña amesak beti dira ... sak. Baña ori ez-pada, goŕotuan o... askotan geŕtatzen dan lez, eskatu ... ke lotsia ikusarazotia geure eskub... ri, besterik ezpada, Euzkadi'n au... tzen garalako.

¡Euzkotaŕak! Bizkai - saŕtalde... abeŕtzaliak dei dagitzube danori z... laguntasuna ez ukatzeko. Zubekin ... tera egun pozkaŕi bat igaroteko ... bixija deuke. Eurak be Euzkad... luŕalde gustijetara eldu dira euren ... nasa berua eruaten anai euzkotaŕ...

Eldu da ba eguna Bizkai aldeko ... tijak eta baŕa-be gipuzkoaŕ asko ... uste dogu utzik egin barik Somoŕo... 'ra elduteko.

Olan egiten ba-dozube, saŕtald... abeŕtzaliak kementsubago jaŕai... dabe euren bidian ikusirik anai-a... dikidiak euragan erakusten daben ... tasuna.

Irakaslien elburuba, JAUN-GOIK... ETA LAGI-ZAŔA, Bizkai-saŕtald... jaristeko, ¡eldu danok aŕen, Somoŕo... 'ra datoŕen igandian!

AXPELA...

ERRIJETATIK

ZEANURI

BATZOKIA.—Gastediak emon legion berotasuna beaŕ-beaŕekoa dala-ta, deya dagitzuet igande aŕatsaldetan aldi alaitxo bat igaro daigun etoŕi bertara. Baŕiketaldi onuratsuak ixango doguz bertan, eta anaitasuna bitaŕte dala matasunik aundienean igaro aŕatsalde amaikakoak.

EUZKERA-IKASLEAK.—Elayan antzera agertu yakuz aurten be, ta gure baseŕiak aŕtu dituibez euren ikastolatzat eta baseŕitaŕak irakasletzat. Uri andiak konturatu dira gure ele mateari beaŕ yakon matasunaz, uri txikiak galtzen daragoyoen aŕtean. ¡Lo-zoŕoti noz itzartuko eta dira ainbeste guraso abeŕtzale, curan eŕuz ta alperkeriz seme-alaba erdeldunak egiten ditubezanak!

Madrid-aldetik etoŕiko euzkera-ikasle bat Ipiñaburu'ko auzunean dogu. ¡Onen gurasoak bai erakutsia askoentzat!

Ipiñaburu'ko auzuneau Goyoaga'taŕ Perderika gure lagun ta abeŕtzaleen "Iruatxeta" deritxon basetxea eŕe da, ezertxo be etxe-treznarik atarateko barik. Lagun dayogun.

Artetxe'taŕ Miren alarguna il gaxo luze baten ondoren elexakoguntzak aŕtuta. Bere gaxo luzea ... bazi andietarako izan dau, erua... gustiz andiagaz igaro dauan ezk... Bere seme-alaba ta senideai gure ... mal-aguŕa ta irakurleai otoi bero ... daskatzuet bere gogo-aldez.

Otzerin-mendi